

Europa berri bateko “beste” hizkuntzak eta kulturak

Aureli Argemí

Problematika orokorra

Europako ia Estatu eratu guztietan bizi edo superbizi dira nazio, herri, komunitate edo giza teldeei dagozkien hizkuntzak eta kulturak, lurralde estatal horietako bakoitzean ofizialduak izan diren hizkuntzen eta kulturen errekonozimendu-mailaraino iritsi ez direnak. Zera esan nahi da: nahiz eta aipatu hizkuntza eta kultura horietakoren bat edo gehiagok lortua izan bakoitzak bere lurralde propioan errekonozimendu juridikoren bat, edo, nahi bada, ofizialtasun-maila bat ere, ez dela izaten hizkuntza edo kultura ofizial/estataleki emandako errekonozimendu bera. Errekonozimendu kontrolatu eta baldintzatu bat ematen da beti, eta, horrela izanik, *minorizatua* bezala definitu beharko litzateke horien egoera.

Egia esan, logika ondo zehatz bati erantzuten dio errealitate horrek. Izan ere, Europako Estatu desberdinak zirkunstantzia historiko batzutatik (“Antzinako Erregimen”aren suntsipen, giza eskubide indibidual eta sozialen aldeko presio, etab.etatik) eta eraldakuntza ekonomiko-sozialen eragile bezala klase zuzendari batzuren nagusigoa justifikatzearren landutako ideologia eta praktika

politiko bat sortu dituen "aro industrial" delakoarekin batera jaiotako botere batzuren artikulaziotik abiatuz joan bait dira finkatzen eta sendotzen. Botere horiek, beste botere lehiakideen funtzioan, hedatu eta mugarritu egin behar izan dituzte beren eremuak. Itunduz, borrokatuz, gerra eginez eta bakerako baldintzak ipiniz. Erremu horietako bakoitzeko boterearen finkapena gizartearen adostasuna erakartzeko gauza izan diren egitura batzu sortuz, beren buruak aurrerapenaren zeinu bezala aurkeztuz eta elkarren arteko komunikaziorako beren baliabide propioen hornidurarekin egin izan da, "antzinako usadioen" eta "bereztasun lokal inboluzionisten" gandiko askapen-zeinu bezala dantzatu izan den kode linguistiko-kulturala sortuz. Bizitza publikoari doakion guztian (irakaskuntzan, administrazioan, informazioan, etab.) printzipioz desberdintasunaren baztertzailer den kode berri horrexek eraiki dituzte izaera estataleko hizkuntzak, lehendik zegoen eta erabaki politikoz hautatuak izan diren hizkuntza edo dialektoren batean oinarrituz, horrela, nagusi edo hegemoniko, hau da, *lurralde osoko hizkuntza komun* bihurtu zitezten. Gisa horretara, italiar Estatu modernoaren hizkuntza, esate baterako, erreferentzia bezala dialekto toskanoa hartuz nagusitu zen eta frantses Estatu modernoaren hizkuntzak ere, iturri garrantzitsuena bezala, Ile de France-ko (Parisko eskualdeko) dialektoa hartu zuen.

Botere estatal berriak, gero, gizartearen adostasunak abandona ez zezan, eusten jarrai ziezaion, eta klase herritar edo menpekoetara ez hedatu zedin, gehien-gehienetan Estatu bakoitzaren barnean ematen ziren "nortasun"-diferentzietan (herri eta nazioen arteko diferentzietan) beren ahalegin guztiekin erasotzen eta hiritarrak bateratu behar lituzkeen kontzeptu berri bat sustatzen saiatu ziren: Estatuaren markoa, *Herri berri*-arena zen eta hauxe zen *Nazio Berri*-aren espresioa. Herri berriak eta Nazio berriak beren hizkuntza eta kultura propioak zituzten, nahiz eta, errealitatean, botereak ezarriak eta boterearenak berak izan. Beste hizkuntzak eta kulturak hondarrak bezala kontsideratu behar ziren eta mespretxuarekin tratatu. "Goimailako" hizkuntza batzu zeuden, beste "behemailako" batzuri kontrajartzen zitzaizkienak.

Gizarte erreal osoa, "finkatuz", bere nortasun anizkoitzetik desberrotzeko lehia hori, ordea, ez zen erabat mamitu. Manipulazio eta usurpazioei eman zitzaion erantzuna, sentimendu nazionalak berraurkitu eta garatzea izan zen Europako alderdi askotan, batez ere gisa horretako planteamenduei muzin eginez artifizialki sortutako "gizarte" batek irentsiak izan nahi ez zuten herrien aldetik. Hortixe sortu zen, hain zuzen ere, "nazionalitate" en problema be-

zala ezagutu izan dena eta Europako hainbat eta hainbat puntutan gure egunotarainoxe iraun duen gatazka-giroa piztu zuena.

Gatazka-giro hori, marjinatuak izatearen kontzientzia hartuz zihozaren herrien hizkuntza eta kulturen "berpizkunde"-prozesuetan nabaritzen zen gehienbat. "Berpizkunde"ak, leku batzutan, jarrera politikoetarantz eboluzionatu zuen, errefusa edo erresistentziako taldeak eratuz, "berreraikuntza nazional"eko borroken bidez, Estatuetatik kanpo edo horien aurka.

Botere estatalek, beren aldetik, beren autodefentsako mekanismoak eratu zituzten. Nahiz aldarrikaturiko eredu berrira integrazteari jarkitzen zitzaizkion herriak jazarri eta zapalduz, nahiz gizartearen sustapenerako bakarrak bezala hizkuntza eta kultura ofizial/estatalak goraipatuz. Gisa horretaraxe lortu zen, toki guztietan ez bada ere, kontestazioaren uholdea geldieraztea. "Beste" hizkuntza eta kulturei zegokienez, gutxiagotasunezko konplexua eta autogorrotoa, indibidual nahiz kolektiboak, sortzea erdie-tsi zuten botere estatalek herri "minorizatu"en baitan. Obligaziozko eskolatzekak, hizkuntza ofizial/estatalean eginak eta komunikabide handiek, gero eta eragin handiagoko izanik botere estatalen edo hauen zerbitzari leialen eskuetan daudenez, eginkizun erabakiorra izan zuten "beste" hizkuntza eta kulturak "garapen" sozial, politiko eta ekonomikoko bide berrietan sartzea eragozten. "Aurrerapen" a betatua geratzen zitzaizen botere estatalek zirriboratu eta praktikan jarritako planteamendu eta proiektu "etorkizun" dunetara moldatzen ez zirenei.

Eskuharmen horiek deseginda edo itxurazko itxaropenik gabe utzi bazituzten ere Europako hizkuntzak eta kulturak, horietako batzuk lortu zuten superbizitza ezezik Europa "berri"aren tesuinguruan posizioak hartzea ere. Jeneralean bertako klase zuzendarietara esker, zeren eta hauek, nahiz eta gauza askotan beren buruak Estatuari "saldu", kritiko izateko eta aldi berean, botere estatalen ondoan, botere autoktono bezala situatzeko ere, arma bat aurkitu bait zuten beren herrien hizkuntzetan eta kulturetan.

Sintomatikoa da nola gure mende honetako bi gerra mundialen artean —"nazionalitate"en arazoak konpondu ezagatik hein handi batean— sendotu egin ziren hizkuntza eta kultura minorizatu batzuek. Horietako zenbait iritsi ziren hizkuntza "normalizatu", hitzaren gaur egungo zentzuan, eta erabilera publikoko bihurtzeraino ere, hizkuntza ofizial/estatalen antzeko mailetaraino, irakaskuntzatik administratzaieraino, alegia. Kasu aipagarrien artean, txe-

kiera eta eslovakiera jarriko genituzke. Beste hizkuntza batzuk, berriz, katalanak adibidez, nahikoa garapen ona lortu zuten bizitza publikoan, hizkuntza koofizialen kategorian baino haratago joan gabe, ordea. Eta azkenik, gainerako hizkuntzek, europar Mendebaldeko gehienek, ezin gaingitu izan zuten "erresistentzia" pasiboaren muga: borondate politiko argi eta borrokalari batek baino arago, ia beti ohiturek definitzen zuten erresistentziaren muga, alegia.

Soviatar Errepublika Sozialisten Batasunaren markoaren barnean, aldiz, hizkuntza eta kultura cz-errusiarrei buruz teoria marxista-leninistak praktikatzearekin, horietako askok behintzat, bakoitzak bere eremua aurkitu ahal izan zuen nahikoa ondo garatze-ko moduan.

Gaur egungo panorama

Europako hizkuntza eta kultura minorizatuak gaur egun eskaintzen duten panorama ez dela homogenoa esatetik hasi behar dugu. Ekonomi Elkartearen markora mugatuz, orain dela urte gutxi batzuta arte hizkuntza eta kultura minorizatuak izan zirenek, hizkuntza ofizial/estatalen statusa erdietsi dutela dakusagu. Horrela, esate baterako, nederlandera flandestarren hizkuntza ofizial/estatala da gaur egun Estatu belgiarrean. Gaelikoa, aldiz, hizkuntza ofiziala izaki Irlandako Errepublikan, ez da, gertatzez, irlandarren hizkuntza amankomuna. Ingelesa da nagusi ia esateko bizitza publiko osoan eta irlandar botere estatalen borondate politikoa guztiz eskasa da gaolikoaren sustapenari buruz.

Gero, badaude beste hizkuntza batzuta Estatu batean minorizatuak direnak baina beste batean ez direnak —alemana Estatu frantsesean (Alsazian), adibidez—, eta, teoriarik bederik ere, egunera mantentzeko baliabide guztiekin kontatzen dutenak. Alabaina, hizkuntza hori, eta beste hizkuntza ofizial/estatal baten presentzia eta obligaziozkotasunaren eta, erabilera publiko normalera iritsi ez dadin, Frantziako botere zentralistak ezarritako mugapenen ondorioz, suntsitzeko arriskuan aurkitzen da.

Beste zenbait hizkuntza eta kulturak, beren defentsako dinamika sozialak gehituta ere, beren superbizipenaren aldeko borroka egin beharra daukate oraindik. Botere estatalen instantzia handiek, nahiz eta gaur egun garai batean bezain uzkur ez agertu hizkuntza eta kultura horiekiko, hizkuntza ofizial/estatalaren presentzia pu-

blikoaren galerarik suposa dezakeen aurrerapen orori atakak jarritz segitzen dute. Egoera horretako adibide ditugu bretoiera, okzitania, romantxera, sardiera, etab. Eta arazo guzti horiek gutxi bailira, hizkuntza batzuk, beren zatiketa faboratzen duen politika baten ondorioz, normalizatzeke aurkitzen dituzten zailtasun eta oztopoak erantsi behar dira.

Oraindik ere badaude fenomeno kolektibo bezala errekonozituak ez diren eta pertsekuzioa jasaten duten hizkuntzak. Esate baterako, turkiera, mazedoniera eta albaniera aktiboki ukatuak dira gaur egun greziar Estatuan ezarritako botereen aldetik.

Azkenik, badauzkagu herriaren borondateak bultzaturiko erabaki politiko autoktonoen eraginez berreskurapen edo zuzperduraren bidetik jarraitzen duten eta jadanik zibilizazio garaikidearen ekarpen zientifiko eta teknologikoen herronkari aurpegi emateko bidea eskaintzen dien modernizazio-fase batean sartu zaizkigun hizkuntzak ere. Katalana eta euskara, zentzu honetan aipatu beharreko bi kasu genituzke. Beren egoera, ordea, hizkuntza minorizatua da, zeren eta beste hizkuntza ofizial/estatalekin "batera bizitzera" behartuak aurkitzen bait dira, beren erabateko normalizazioa dagokien hizkuntz lurraldearen bizitza publikoan behaztopatu eta itotzera jotzen duen elebitasun instituzionalizatuzko sistemaren barnean (eta hori Estatu espainolaren partean bakarrik, frantses Estatuan oraindik okerragoak dira eta baldintzak). Eta lurralde hori, bestalde, botere ofizial/estatalek zatitu egiten dute, komunitate kontrajarriak era daitezzen.

Mendebal Europako "beste" hizkuntza eta kulturen mosaikoa eratzen duten egoera-desberdintasun horiek —aipatutako adibideak ez dira, inondik ere, zerrenda eshaustibo bat—, gauza bat dute amankomunean, aipatutako lehen kasuak alde batera uzten baditugu: alegia, errekonozimendu-maila gutxi-asko handiarekin, ez duela hizkuntza eta kultura horietako ezeinek, artikulua honen hasieran azpimarratzen nuen bezala, erantzun guztiz eta erabat asebetekoa izan botere dominatzaileen aldetik. Eta horrek, jakina, "beste" hizkuntza eta kulturen funtsezko "minorizazio"aren irauanean irautea besterik ez du esan nahi.

Hizkuntza eta kultura horienganako politika orokorra, Europako Elkarteko erakunde handien markoan —Europako Kontseiluan eta Europako Parlamentuan—, era esanguratsu batean adierazi da 1981etik aurrerako gomendio eta erabakietan. Guzti horietan jakin erazten zen hizkuntza eta kultura batzutan "minoritario" eta

bestetan "erregional" deituak irakatsiak izan daitezelako gogoia, duintasunez garatu ahal izateko laguntza politiko-ekonomiko bat lor dezatelakoa eta, areago oraindik, araudi-maila batek horretarako biderik ematen badu, hizkuntza ofizial edo ofizialkide bezala garatzekoa administrazioan, goimailako ikasketetan, komunikabideetan eta bizitza publikoari doakion guztian. Gomendio eta erabaki horiek, hala ere, ez dira behartzaileak. Eskuak libre uzten dizkiete gobernu estataleki beroriek interpretatu eta aplikatzeko orduan. Eta egia esan, oraingoz behintzat, ez dute aldatu deskribatu dugun panorama. Dena den, erakunde-mailako europar sentikortasun bat adierazten dute, hizkuntza eta kultura horien aldeko presio sozialak jasotzen dituztela eskierki.

Etorkizunerantz

Jakina, Europako "beste" hizkuntza eta kulturen etorkizunaz hitz egiten hastea, aieru eta iragarpenetan sartzea besterik ez litzateke; mundu ezezagunean sartzea, azken batean. Nire ikuspuntutik begiratuta, pentsatzera baizik ezin gaitzke arriskatu etorkizunaz, horretarako iradokitzen duten eta adieraz lezaketan lerroak behatuz.

Printzipioz, "beste" hizkuntza eta kulturekiko ondorio positiboak izango lituzketen bideetako bat zera da: Europako Estatu "moderno"ak sorterazi eta sendotu zituzten arrazoi, planteamendu eta ideologiak gero eta galtzenago ari direla beren pisua eta sinesgarritasuna. Hau da, biziki azkar sartzen ari garen eta, sinplifikatuz, "postindustrial" bezala definitua izan den aro berriak, hain zuzen ere industrializazioaren beharren ingurumarian artikulatu izan diren Estatu "moderno"ak gainditzera garamatza. Estatuarteko mugek egunean baino egunean zentzu gutxiago dute multinazionalen inbasioaren aurrean, edota komunikabideen eta informazioaren hedapenaren, lanaren estaturik gairikiko banaketaren, kapital handiaren eragiketen, etab.en aurrean. Horrela, bada, estatu "moderno"ak eraiki eta justifikatzeko alegatu izan diren arrazoiak, "beste" hizkuntza eta kulturen kontrako inplikazioekin, edukinik gabe hustuta geratzen dira. Alde honetatik, ateak ireki egiten zaizkie, edota, hobeto esateko, itxi ez zaizkie egiten.

Pixkana-pixkana Ekonomi Elkartea bezalako europar makroespazio bat eraikitzearekin, ordea, Estatu "moderno"en erakuntzarekin sortu zirenen antzeko arazoak azaltzen dira orain ere. Ez al litzateke "beharrezko" izango hizkuntza eta kultura "nagu-

si" bat europar marko berri horretan? Zentzu horretako joera bat markatzen ari dela dakusagu, ingelesa —hizkuntza eta kultura dominatzailea, munduko lehen botere handiarekin dituen loturengatik— europarren arteko harremanak sustatzeko gero eta "beharezko" agoa gertatzen ari dela egiaztatzen dugunean. Eta, beste ikuspegi batetik begiratuta, ondotxo ohartzen gara zenbaterainoko esfortzuak egiten dituzten gobernu estatalek beren hizkuntza eta kultura ofizial/estatalak defendatzeko; sintomatikoki, gaur egungo Estatu zapaltzaileen aurrean "beste" hizkuntza eta kulturak mintzatu eta praktikatzeko dituztenek egin behar izaten dituzten defentsak eta esfortzuak gogoratzen dizkigutenak, hain zuzen ere.

Etorkizunari begira Europa bikoitz posible bat apuntatzen duen errealitate kontraesale honetan, Europako hiritar guztiei daxezkien funtsezko arazo batzu agertzen edo berragertzen zaizkigu. Bidegurutze batean gaude, egia esan. Ala korronteetako bati jarraitzeko erabakia hartzen dugu, bere ondorio guztiekin, eta Europako hizkuntza eta kulturei dagokienez —eta ez gaur egun minorizatuak daudenei buruz bakarrik—, ala berorien hil-kanpaiak prestatzen hasten gara, ala, denok elkarrekin, *Europaren nortasuna* bera, inolako hertsapenik gabe, birplanteatzeko fase batean sartzen gara, etorkizun gizatiar eta gizatiartzaile bat eraikitzeko aukerabide bakar bezala.

Bigarren suposamenduari heltzeko gauza baldin bagara, horren inguruko gogoetak —eta jadanik europar gizartearen sektore asko dira kezkatzen hasiak daudenak— uste dut eraman behar gaituela, Estatuak eta hauen ideologiaren eta autojustifikazioen *handicap*-ak gaindituz, benetako herri eta nazio diferenteez, hizkuntza eta kultura desberdinek, dagokien lekua okupatuko duten Europaren etorkizun baten alde lan egitera. Europarrak eta unibertsalak izateko modu bakarra, pertsona bakoitza, talde bakoitza, kolektibitate bakoitza, herri eta nazio bakoitza nor bera izanez eta berdintasun osoko planoan garatuz lortzen delako konbentzimendu argiarekin. Botere handiek kontrakoaz konbentzitzeko aldarrikatzen dizkiguten europartasuna eta unibertsaltasuna, beren interesen —eta ez beren "menpeko" enen— alde manipulaturako abstrakzioak dira. "Eraitsi" daiteke, beraz, hizkuntzak eta kulturak, duten baliagarritasunaren edo gainerakoien balioezaren arabera neurtzen dirclako pentsakera. Oso bestelako gauza bat dela, alegia, hizkuntzak jakitea eta mintzatea —oso baliosoa eta beharrezkoa, gainera—, bakoitzaren nortasuna adierazten duen hizkuntza bat norberarena bezala eduki eta praktikatzearen aldean.

Beti nortasuna berreskuratzera proiektaturiko europar etorkizunaren bidetik, hizkuntza eta kultura guztien berdintasuna sustatzea da uniformismoen aurkako alternatiba, diferenteak izateko eskubidearen garantia bezala. Beste hitzetan esateko, hizkuntza eta kultura guztiak berdintzat emanez —eta ez batzu goragokotzat eta gainerakoak beheragokotzat—, horietako bakoitzaren duintasuna errespetatzea da, pertsona guztien, aldi berean berdin eta desberdinen, "esentzia" errespetatzea. Horrexegatik, bada, biharko Europa eraikitzeari buruz, hizkuntza eta kultura bakoitzak errekonozimendu eta aukerabide berdinez gozatu behar du bakoitza bere lurraldean adierazi eta garatzeko.

Oraindik indarrean dauden edo herriak errebindikatzen dituen lurralde historikoetako hizkuntza eta kulturei dagokienez, nahiz eta gaur egun, jeneralean, lermatuak egon, biharko Europak ezin dezake erantzun hizkuntza batzuren (gaur egun ofizial/estatal direnen) besteekiko (gaur egun beren eremuan minorizatuak direnekiko) lehenatasuna suposa dezaketen "soluzio"ekin. Elebitasun instituzionalizatua ez da hizkuntza marjinatuentzako etorkizunaren adierazle. Zuzenkontrako politika estatalisten fruitu diren gertatzezko egoerak legalizatzen ditu, eta Estatuetakoa gaur egungo botereek altxatuko elkarbizitzarako eskubidea aldrebesten du. Izan ere, elkarbizitzaren argumentuak, hizkuntza eta kultura desberdinetako komunitateen artean elkarrenganako errespetuzko baldintzak sortzeko ideal bezala eskrimatua izan denak —berorren konkretizazioa, botere estatalen tesien arabera, elebitasun kolektiboa izango litzatekeelarik— behin-betiko argumentua izan behar du, egia esan, berenaz bestelako hizkuntza eta kulturako lurralde batean behin-betiko finkatu diren guztiek hizkuntza eta kultura horiek bere egin ditzaten, eskubide kolektibo bat bezala eta bere altzoan hartzen dituen herrian parte hartu eta bertan txertatzeko utziezinezko baliabide bezala. Apenas ezer egin daitekeen elkarbizitzaren alde zuzenkontrako egoerak edo anbiguoak mantenduz; batez ere hauek, beren lurralde propioan besteekiko duten "diferentzia"rekin definituak izaki, beti minorizatuak direnak desfaboratuz amaitzen dutenean.

Noski, "giza ekologia"ren aldeko aukerabide bezala ere bataia genezakeen eta jadanik seinaturiko premisetan oinarrituriko europar etorkizun "alternatibo" bat sortzen joateko lana, utopia hutsa izango litzateke, baldin eta ez balio lagunduko erabaki politikoek bideratu, bermatu eta bultzaturiko borondate nazional eta herritar batek. Erabaki politikoak dira, azken batean, arlo linguistiko-kulturealean eta Europaren multzoan, oraindik seguru

asko kopuruz minoritarioak baina etorkizunari begira “objektiboak” diren errebindikazio sozialen arrakasta garantizatzen dutenak.

Premiazko gauza da, erabaki politikoak argiak eta argitzailak izateko, Estatuaren mugak Herri bakar baten eta Nazio bakar baten lurraldeekin identifikatzera behartu nahi izan zuten ideologiak eta egiturak desmozorrotzea. Zeren eta identifikazio hori, kasurik gehienetan, erabat artifiziala izan bait da. Eta horrelaxe bakarrik jalgiko bait da berriro Europa murgildua, bere benetako herri eta nazioetatik. Eta horrelaxe eraiki ahal izango da Europa “berria”, bere nortasun-zeinuzko oinarriaren gainean.

Etorkizun progresista baten planteamendu horietan —progresista, egia esan, gizarte europarraren joran gizatiar eta gizatiartzaila objektiboetan txertatzen da eta—, erantzukizun historikoa handia dute “beste” herri eta nazioek. Berak direnez gero, beren nortasun propioan, marjinazioa, diskriminazioa, neokolonialismoaren formarik sutilenak, zentzu “global” batean (gizarte osari doakionean) jasaten dituztenak, berek izan behar dute Europa “berritu”aren lehen motoreak izateko ardura hartu behar dutenak.

Eta horrek suposatzen du, lehen urrats bezala, demokrazian eta giza eskubideetan sakontzea. Hain zuzen ere Estatu “moderno” instrumentalizatzaileak —gaur egun zaharkituak— eraikitzen zireneko Europako “iraultza” gizatiar eta gizatiartzaila sortu zuten giza eskubide indibidualen hariari, botere estatalek abandonatu edo minimizatutako hariari, jarrituz eta berori osatuz. Botere estatalek porrot egin erazi zioten itxaropenezko Europa huraxe da “beste” Europa bati sorrera emateko herronka aparta, klase nagusien komenientzia interesatuen arabera ez baina batzuk besteekiko elkartasunez artikulatutako bestelako harreman-mota batekin. Herronka handi bat da, egia esan; Europa estatalista, merkatari eta ustiatzailearen uztarpetik askatu eta Europaz kanpoko herri marjinatuen borroka-esperientziatik etorritako ekarpen berriekin konstatzen duen herronka, hain zuzen ere.

Etorkizunaren aurrean gu geu izateko ala ez izateko dugun problemak ikusteko modu global batekin eta praktika kontsekuente batekin bakarrik pentsa genezake, arrazoizko funtsarekin, gaur egun mehatxatuak aurkitzen diren hizkuntza eta kulturen “askapen”ean.

Euskaratzailea: Gotzon Nazabal

A. A.